

# AGURRA

"Madalenak" inguruko egun hauetan, jai eta alaitasunez beterikoak, despedida gisa, azken urte honetan Udaletxetik bultzatu ditugun ekintzen aipamen laburra egin nahi dut.

Lehenik eta behin, antzinako Larzabal futbol zelaia ordezkatu duen Fanderiakoaren inaugurakeṫa nabarmendu nahi dut. Instalakuntza moderno eta duinak ditu, datorren mendeari itxaropenez begiratzen dion hiri bati dagozkionak hain zuzen.

Bestalde, herritarrok konturatuko zineten Udaletxea handitu dugula. Orain erosoagoa da, eta Errenteriako gehiengoak egingo dituen eskariak geroz eta arinago kudeatzeko balioko duelakoan nago, eta modu horretara errenteriar guztiek Udaletxea hurbilago sentituko dutela.

Asko dira bukatu edo bukatzear dauden obrak, esaterako, Gabierrotako garajeak edo antzinako Liho orubekoak. Horrezaz gain, "La Lanera"ko obrak hasi ditugu, duela gutxi inauguratu zen saihetsbidea, horrekin lehengo errepide nazionaleko trafikoa nabaritzeko moduan gutxitu delarik.

Kultura arloan, izarra "Villa de Errenteria" kulturguneak izaten jarraitzen du, izan ere, bigarren fasealdia abian baitago, eta behin hori bukatutakoan, gure herriaren dinamika eta gauzak ondo egiteagatik ezaguna egin duten hainbat kultur ikuspegi adierazteko balioko du.

Udal honetan gizarte zerbitzuei beti lehentasuna eman izan zaie, eta ahalegin guztia egin da, behar gehien duten sektoreei erantzun bat emateko batez ere. Hori dela eta, etxez etxeko laguntzak eta dirulaguntzak gehitu ditugu. Era berean, adinduentzat egoitz berri bat egitearen alde gaude, honekin hitzarmen bat edo kontzertu bat egiteko asmoa dugularik, bertan Errenteriako zahar gehiago jaso ahal izateko.

Azkenik, gure herrian dagoen langabezia ikusita —ez zitekeen beste modura jardun—, ahaleginak egin ditugu gizarte-gaitza hau arintzeko. Horretarako, hortxe daude bi industrialdeak (Txirrita-Maleo eta Masti-Loidi), gazteentzako eskola-lantegi berria —non lanean ariz ikasten baitute eta ikasiz lana egin—, emakume edo denbora luzez langabezian daudenen modukoentzat antolatutako prestakuntza-programak, eta langabetuak kontratatzearren hitzarmen edo progamak egiteko, erakunde guztiekin burututako lankidetza.

Aurtengo urtean egindakoaz orriak eta orriak idazten jarrai genezakeen, alabaina zerzelada txiki batzuk nahikoa direla uste dut egoeraz jabetzeko.

Hogei urte daramazkit kargu-publiko modura, lehenbiziko zinegotzi eta batzarkide, eta azkenik, alkate. Epe zoli horretan aukera ederra izan dut, lehenbizi, herritarrei zerbitzatzeko, eta gero, denak baliatzen garen zerbitzu publiko zenbait hobetzen laguntzeko, hori dela medio bizi-kalitatea hobetu egin delarik. Horretan eta nire eginkizun guztietan borondate osoa ipini dut. Kargu horietan guztietan asko ikasi dut. Eta nire politika-jarduera amaitzeko, Alkatetza hartu izanak aukera eskaini dit herri honetako arazoak, hurbiletik, zuzenki tratatzeko, eta zenbaitetan egoera larrian zeuden pertsona askoren arazoak bideratzeko.

Nire zikloa bete dudalakoan nago eta jende gazteari pasoa utzi behar zaiola, eta horiek badakite nire eskarmentua euren eskura izango dutela nahi dutenerako.

Une hauetan Errenteriako herritar guztien zerbitzura egon izanaz arro sentitzen naizela esaten dizuet. Era berean, eskerrak ematen dizkizuet eskaini didazuen laguntzagatik, eta gizakiak garen aldetik, egin ditudan hutsak konprenitzeagatik. Nire ordez etorriko denak beste hainbeste izatea gustatuko litzaidake. Eskerrik asko bihotz-bihotzetik

Amaitzeko, jai zoriontsuak opa dizuet errenteriar orori eta gure Madalenetan bisitatzen gaituztenei.

Izptua.: Adrián López Villegas
Errenteriako alkatea.

*(Errenteriako Alkatea 1999ko uztailaren 3a arte)*

# SALUDA

En estos días de fiesta y de alegría en los que nos encontramos con motivo de nuestras "Magdalenas", deseo —a modo de despedida— hacer un breve repaso a aquellas acciones que desde el Ayuntamiento se han impulsado en este último año.

Primeramente quiero resaltar la inauguración del nuevo campo de fútbol de Fandería, que ha relevado al antiguo de Larzábal, con unas instalaciones modernas y dignas, propias de una Villa que mira con esperanza al próximo siglo.

Por otra parte, también los ciudadanos habrán podido comprobar cómo hemos ampliado la Casa Consistorial haciéndola más cómoda, con el objetivo principal de acercar a los renterianos y renterianas a la vida municipal, donde puedan gestionarse de manera cada vez más eficaz y ágil las soluciones a los problemas que demanda la mayoría de Errenteria.

Muchas han sido también las obras acabadas o a punto de finalizar, como pueden ser los garajes en Gabierrota, en el antiguo solar de Lino.

Además ya se han iniciado las obras en "La Lanera", e inauguramos hace pocos meses la variante, que ha descongestionado de manera palpable la antigua carretera nacional.

En el área cultural, la estrella sigue siendo el Centro Cultural "Villa de Errenteria", cuya segunda fase ya está en marcha y su culminación servirá para albergar las múltiples facetas culturales que hacen que nuestra Villa sea conocida por su dinamismo y su buenhacer.

Los servicios sociales han sido siempre una prioridad para este Ayuntamiento, haciendo todo lo posible para paliar los problemas que sufren, sobre todo, los sectores sociales más desfavorecidos. Para ello hemos ampliado la cobertura de ayudas económicas y la domiciliaria, así como el apoyo a la construcción de una nueva Residencia de Ancianos, con la que esperamos aprobar un convenio o un concierto para poder acoger a los vecinos más mayores de Errenteria.

Por último, como no podía ser de otra forma y ante la situación de desempleo que existe en la Villa, nuestros mejores esfuerzos han ido dirigidos a paliar esta lacra social. Para ello, ya son realidad las dos zonas industriales (Txirrita-Maleo y Masti-Loidi), la nueva Escuela-Taller para los jóvenes —donde se aprende trabajando y se trabaja aprendiendo—, los programas de formación para colectivos que parten de una situación de inferioridad como son las mujeres o los parados de larga duración, y el que hayamos seguido colaborando con todas las instituciones para realizar convenios o programas de contratación de desempleados.

Podríamos seguir escribiendo páginas y páginas sobre lo realizado durante este año; pero creo que unas breves pinceladas valen para hacernos una composición de lugar.

Llevo 20 años ejerciendo cargos públicos como concejal, juntero y finalmente alcalde. En este intenso periodo he tenido la gran oportunidad, en primer lugar, de servir a los ciudadanos y contribuir a mejorar algunos de los servicios públicos de los que todos disfrutamos, lo que ha supuesto una mejora en la calidad de vida. He puesto en ello, y en todas mis actuaciones, toda mi voluntad.

En todos estos cargos he podido aprender muchas cosas. Para finalizar mi actividad política, la experiencia de haber asumido la Alcaldía me ha supuesto la ocasión de tratar de cerca, personalmente, los problemas de este pueblo y, a veces en situaciones muy difíciles, a muchas personas.

Considero que ya he cumplido mi ciclo y que hay que dejar paso a la gente joven, que ya saben que pueden contar con mi experiencia para lo que deseen.

En estos momentos como alcalde, quiero manifestar a todos los vecinos y vecinas de Errenteria, que me siento muy orgulloso de haberles servido, así como agradecerles su colaboración y su comprensión ante los fallos que seguramente haya podido tener, pues todos somos humanos. Gracias de todo corazón por su apoyo, que espero siga teniéndolo mi sucesor.

En estos días festivos, finalizo deseando unas felices fiestas a todos los renterianos y renterianas, así como a los que nos visiten durante nuestras "Magdalenas".

Fdo. Adrián López Villegas
Alcalde de Errenteria

*(Hasta el 3 de julio de 1999)*